

### III. ERANSKINA: ... ZENBAKIKO BISITA-PANELAK DOKTOREGO-PROGRAMEN EGIAZTAPENA BERRITZEKO BISITA EGITEKO AGENDA-PROPOSAMENA:

**UNIBERTSITATEA:**

**TITULUA/K:**

**BISITATU BEHARREKO ZENTROA:**

**Eguna: Bisitaren data**

**Orduategia: 00:00etatik 00:00etara**

**Parte-hartzaileak:**

**Presidentea:**

**Ikasle kidea:**

**Akademiko kidea:**

**Bisitako idazkaria:**

**Hala badagokio, Unibasq-eko langileak:**

**Hala badagokio, kalitateko aditua:**

**Unibertsitateak bisita egiteko kontuan hartu beharreko alderdiak:**

**ELKARRIZKETATUTAKO PERTSONAK:**

- ✓ Adituen Panelak eskatzen dituen kolektibo inplikatueto pertsonak hautatu eta bilerak behar bezala antolatuko ditu Unibertsitateak.
- ✓ Saioek 30-60 minutuko iraupena izango dute, elkarrizketatutako pertsonen kopuruaren eta ebaluatu beharreko tituluen arabera. Ezein bilerak ez luke 60 minututik gorako iraupena izan beharko. Agendan finkatutako orduategia betetzea eta adierazitako denborak ez gainditzea komeni da.
- ✓ Pertsona batzuek hainbat funtzio edo ardura badituzte ere, panelak, oro har, nahiago du pertsona bakoitzak elkarrizketa batean baino ez parte hartzea.
- ✓ Unibertsitateak elkarrizketa egin behar duten pertsonak hautatuko ditu panelaren gomendioei jarraikiz, eta, aldeztatik, entzunaldietan parte hartu duten pertsonen betetako agenda hau eman beharko dio Batzordeari.
- ✓ Unibertsitateak titulu bakoitzerako eskatutako kolektibo guztiak daudela ziurtatu beharko du. Elkarrizketatu beharreko pertsonaren bat joan ezin bada, elkarrizketa telefonoz, bideokonferentziaz edo beste baliabideren baten bitartez egin ahal izango da.
- ✓ Unibertsitateak laguntza emango dio Adituen Panelari egiaztapena berritzeko ebaluazio-prozesuaren inguruan egiten dituen eskaeretan. Unibertsitateko kide batek egingo dio harrera Adituen Panelari, ongietorria egiteko eta haren jarduna errazteko beharrezkoa den guztia antolatzeko. Halaber, Unibertsitateko kide batek agurtuko du Panela bisita amaitu ondoren.

#### GELEN ANTOLAERA:

- ✓ Unibertsitateak gela bat prestatu beharko du parte-hartzaileentzat, eta parte-hartzaile bakoitzak ordenagailu bat izango du, interneterako konexioarekin eta dokumentazioa inprimatzeko aukerarekin.
- ✓ Prestatutako gelan, eskatutako ebidentziak aurkeztu beharko zaizkio panelari (aldez aurretik bidali ez badira).
- ✓ Elkarrizketa egiterakoan, paneleko kideek elkarrizketatu beharreko pertsonen aurrean eseri beharko dute, eta paneleko kideak eta elkarrizketatu beharreko pertsonak identifikatuko dituzten kartelak jarri beharko dira, izena eta titulazioari lotutako kargua adierazita.

#### INSTALAZIOAK:

- ✓ Erabilera orokorreko instalazioak (hala nola liburutegia eta kalkulu-zentroa) eta askotariko funtzioetarako gelak (hala nola titulazioan inplikaturako tailerrak eta laborategiak) erakutsi beharko dira.
- ✓ Instalaziorik espezializatuenetara egiten den bisitan, panelari bidezkoa diren azalpenak eman diezazkioketen langileak egoteko eskatzen da.
- ✓ Unibertsitateak Adituen Panelak egin beharreko bidaiak antolatuko ditu, beharrezkoa izanez gero.

#### BAZKARIA:

- ✓ Bazkariaren erreserba Unibertsitateak egingo du. Paneleko kideen bazkariaren zenbatekoak Unibasq-ek finkatutako tarifei lotuta egon beharko du. Handiago bada, aurrekontua bidali beharko zaio Unibasq-i, hark onar dezan.

#### ENTZUNALDIA:

- ✓ Entzunaldi publikoa Unibertsitateak iragarri beharko du, eta tituluarekin lotura duen eta agendan finkatutako elkarrizketetara joateko deitu ez zaion pertsona oro joan ahal izango da, edota iritzia Unibasq-en utzi (helbide elektronikoa: [azter@unibasq.eus](mailto:azter@unibasq.eus)), bisita egin baino 48 ordu lehenago.

#### AGENDA-PROPOSAMENA:

Ordutegia	Saioa	Unibertsitateko parte-hartzaileak:
8:00 8:15	Adituen Panelaren harrera, unibertsitatean bisitaren ardura duen pertsonarekin.	
8:15 9:30	Unibertsitateari eskatutako ebidentzien berrikuspena	
9:30 10:15	Elkarrizketa: <u>Zuzendaritza-taldea eta arduradunak</u> (2 pertsona gutxienez eta 3 pertsona gehienez titulazio	1.- 2.-

	bakoitzeko)	.
		.
10:15 11:00	Elkarrizketa: <u>tesien zuzendariak</u> (2 pertsona gutxienez eta 5 pertsona gehienez kolektibo bakoitzeko)	1.- 2.- . .
11:00 11:30	Etenaldia eta kafea	
11:30 12:15	Elkarrizketa: <u>doktoregaiak</u>	1.- 2.- . .
12:15 13:00	Elkarrizketa: <u>egresatuak</u> (2 pertsona gutxienez eta 4 pertsona gehienez kolektibo bakoitzeko)	1.- 2.- . .
13:00 13:45	Elkarrizketa: <u>enplegatzaiak</u> (2 pertsona gutxienez eta 3 pertsona gehienez titulazio bakoitzeko)	1.- 2.- . .
13:45 14:15	Entzunaldi publikoa	
14:15 16:15	Bazkaria	
16:15 17:15	Instalazioetarako bisita	
17:15 17:30	Agurra	